

© Hitzontzi ©

Paperezko hegazkinak-*Aviones de papel*



Aurreko uztailaren 4tik abuztuaren 23ra bitarte Koldo Mitxelena Kulturguneko Ganbaran, OEPLik antolatu zuen Haur eta Gazte Liburuaren IV. Iberiar Biltzarra zela eta, Galtzagorri Elkarteak Labirintoaren erbestean izeneko areto-erakusketa aurkeztu zuen. Itziar Zubizarretaren ideia eta zuzendaritzapean, Zuriñe Fernández Gerenabarrena musikariak egindako lanaren konpasean, Mikel Valverde hautatutako euskal marrazkilarien zientoka marrazki eta Patxi Zubizarretak aukeratutako euskal idazleen hamahiru testu erakutsi ziren, gure HGLren halako ikuspegi bat emate aldera. Baina DVDarekin batera, labirinto fisiko bat eraiki zuten Aitziber Alonsok eta Miren Gonzalez Goikoetxeak, haurrak halako bidaia sinbolikoa egin zezan. Erakusketaren bidaia ere hasi baino ez da egin, baina bitartean hona hemen erakutsitako testuak.

1. Utopiaren utopian


Aingeru Hegaztik abiadore izan nahi zuen, Sondikako aireportutik mundu guztiko eta ilargiko aireportuetara joaten zen abiadore ospetsua. Abiadore, astronauta, kosmonauta...

Gurasoek jostailu denda bat zuten, eta han egoten zen Aingeru ere haiei laguntzen. Baina abiadore izan nahi zuenez, gurasoek azkenean hegazkintzako ikasketak egitera bidali zuten.

Hegazkinen burrunbada eta abiada zituelarik beti buruan, paperezko abioitxoak egiten hasi zen klaseetan. Eta paperezko abioitxoak egiten eman zituen klaserik gehienak. Eta paperezko abioitxoen abiadore egin zen.

Gaur Sondikako aireportuko dendatxo batean dago paperezko eta plastikozko abioitxoak saltzen.

MIKEL ZARATE, *Utopiaren utopian*



2. Hiru eguneko asteburuak

Egun batez, antzinako Tuteran, lagun egin ziren Ali, Miriam eta Joanes izeneko neska-mutikoak. Elkarrekin hain ongi ibili zirenez, hurrengo batean ere elkartzea erabaki zuten. Baina hurrengo jaiegunean geratu baitziren, Ali, musulmana izaki, ostiralean agertu zen; Miriam, judua izanik, larunbatean; eta Joanes, kristaua, igandean. Eta ezin bada berriro elkartu. Gaitz erdi, hala ere, zeren hurrena, ustekabean topo egin zutenean eta dena argitu zutenean, erabaki ezin egokiagoa hartu baitzuten: «Jaia astean behin egin beharrean, zergatik ez dugu bakoitzak berea eta beste biena ospatzen? Hartara, akabo gure problemak». Famatu egin zen geroztik antzinako munduan Tuterako hiri ezin nobleagoa non astean hiru egunez jai egiten baitzen.

XABIER URZANTE, *Adarbakoitzaren oinatza*

1. Utopía de utopías

Ángel Alado quería ser aviador, un aviador famoso que viajara desde el aeropuerto de Bilbao a todos los aeropuertos del mundo y de la luna. Aviador, astronauta, cosmonauta...

Sus padres tenían una tienda de juguetes y Ángel pasaba allí mucho tiempo ayudándoles. Pero tanto deseaba ser piloto que sus padres, al fin, le enviaron a la escuela de aeronáutica.

En su cabeza no tenía más que el estruendo y la velocidad de los aviones, y en las clases empezó a hacer aviones de papel. Se pasó la mayor parte de las clases haciendo aviones de papel. Y se convirtió en piloto de aviones de papel.

En la actualidad tiene una pequeña tienda en el aeropuerto de Bilbao donde vende aviones de plástico y de papel.

MIKEL ZARATE,

En la utopía de la utopía

2. Fin de semana de tres días

Un día, en la antigua Tudela, tres jóvenes llamados Alí, Miriam y Joanes se hicieron amigos. Se lo pasaron tan bien estando juntos, que decidieron volver a encontrarse. Quedaron en reunirse el próximo día de fiesta, pero Alí, que era musulmán, apareció a la cita el viernes; Miriam, que era judía, se presentó el sábado; y Joanes, que era cristiano, acudió el domingo. Así era imposible que volvieran a reunirse. Pero no salió tan mal, al fin y al cabo: cuando, por casualidad, volvieron a encontrarse y lo aclararon todo, tomaron una decisión muy oportuna: «¿Por qué, en lugar de hacer fiesta un día a la semana, no celebramos cada uno la suya y la de los otros dos? De esa forma, se acabó el problema». Desde entonces, cobró fama en todo el mundo la muy noble ciudad de Tudela, en la que el fin de semana duraba tres días.

XABIER URZANTE, *La huella del unicornio*

3. Gure herria

Gure aitonak beti esaten du masustak ezkutatu egiten direla sasi artean; eskuarekin sasiak pixka-pixka bat apartatu eta orduan bai, orduan topatzen direla masustarik mardul eta goxoenak, hostoen azpian ezkutatuta bezala. Gure herriarekin ere halaxe gertatzen da. Herri txikia da, pixka bat ezkutuan dagoena, baina errepide nagusia sasia bezala apartatuz gero, han aurkituko duzue. Masusta goxo bat bezalakoa da gure herria.

HARKAITZ CANO, *Omar dendaria*



4. Urtaroak

Udaberriko haize berdexka:
belar samurrak nire oinei kilika.
Udako haize urdinxka:
olatu artean nire oinak txaloka.
Udazkeneko haize horixka:
nire oinetan orbelaren fereka.
Neguko haize gorrixka:
zure oinak nire oinei igurtzika.

MIREN AGUR MEABE, *Begira-begira*

5. Omarren testigantza

Gure aita European soldadu egon zen, frantsesen armadan, alemanen aurkako gerran. Aitak esaten zuen: «European hotz egiten du. Europak hozkailua ematen du. Europa nolakoa den jakin nahi baduzu, zabaldu hozkailua, bost minutuan sartu eta ateratzen zarenean esango didazu zer sentitu duzun. Bada Europa horrelakoa da. Familiarik ez baduzu, ez baduzu lagunik, sufritu egingo duzu, hil egingo zara».

KIRMEN URIBE, *Bar Puerto*

3. Nuestro pueblo

Mi abuelo acostumbra a decir que las moras se esconden entre la maleza, y que hay que apartar un poco las zarzas con la mano para poder alcanzar las más sabrosas y dulces, las que están ocultas bajo las hojas. Con mi pueblo ocurre algo parecido: es un pueblo pequeño, está escondido y a desmano, pero basta apartarse de la carretera general, basta apartar ligeramente la zarza para encontrarlo. Nuestro pueblo es como esa mora escondida, una mora bien rica.

HARKAITZ CANO, *Omar el tendero*

4. Las estaciones

*Brisa verde de primavera:
cosquilleo de la hierba nueva en mis pies.
Brisa azul de verano:
trotan mis pies entre las olas.
Brisa amarilla de otoño:
caricia de la hojarasca en mis pies.
Brisa roja de invierno:
frotan tus pies los míos.*

MIREN AGUR MEABE, *Begira-begira*

5. Testimonio de Omar

Nuestro padre fue soldado en Europa, estuvo alistado en la armada francesa, en la guerra contra los alemanes. Mi padre decía: «En Europa hace mucho frío, Europa parece una nevera. Si quieres saber cómo es Europa no tienes más que abrir la nevera, meterte dentro cinco minutos y contarme lo que sientes al salir. Pues Europa es así. Si no tienes familia, si no tienes amigos, vas a sufrir, te vas a morir».

KIRMEN URIBE, *Bar Puerto*

6. Ipar Poloan

Inuit batek jalan zuloa egin
eta amua bota zuen;
amua trabatu eta inuita
tira eta tira hasi zen
baina ezin.
Beste inuit bat joan
zitzaion laguntzera
baina ezin.
Beste bat ere agertu zen
eta beste bat eta beste bat...
baina ezin.
Han bildu ziren milaka inuit
amuari tira eta tira, ilaran...
eta Lurra irauli zuten
eta ipurdiz gora jarri.

JUAN KRUIZ IGERABIDE, *Haur korapiloak*

6. En el Polo Norte

*Un inuit cavó un agujero en el hielo
y echó el anzuelo.
El anzuelo se atascó, y el inuit
tiró con todas sus fuerzas,
pero no pudo soltarlo.
Llegó otro inuit
y tiraron a una,
pero ni por esas.
Llegó otro más
y otro, y otro...
y ni por esas.
Se juntaron miles de inuits
y tiraron del anzuelo todos a una.
De pronto, La Tierra se volcó
y se quedó patas arriba.*

JUAN KRUIZ IGERABIDE, *Haur korapiloak*

7. Hegoaldekoa naiz

*Hegoaldekoa naiz Iparraldean: marrubiak,
olibak eta laranjak hazten diren lurraldekoa.
Horregatik bizi naiz semaforoz semaforo,
hiru kolore horien atzetik, hiru zapore horien
minez.*

MANU LOPEZ GASENI, *Semaforoko ipuina*

7. Soy del Sur

*Vivo en el norte, pero vengo del sur; de una
tierra donde abundan las aceitunas, las naranjas
y las fresas. Por eso deambulo de semáforo en
semáforo, persiguiendo sus colores, añorando
sus sabores.*

MANU LOPEZ GASENI, *El cuento del semáforo*



8. Desertua

Benetako behi izan nahi duenari nahitaezkoa zaio desertua, nahitaezkoa zaio mundutik urrutiratu eta hondarra besterik ez dagoen erresuma mortuan bolada bat egitea. Hondar artean, belar edo ur izpirik gabe, berdamenaren gozotasunik gabe, behiak sufritu egingo du, eta maiz, eguzkiak ankerki jotzen duenetan-eta, atzera egin eta ikuiluratzeko gogoz erotuko da. Baina benetakoa izan nahi duen behi horrek, eta ez behi ustel edo makal, ez dio etsipenari amore emango; aurrera jarraituko du desertua zeharkatu eta mendi hezeak, baso itzaltsuak, begietan har ditzan arte. Orduan, poetaren esana gogoratuz, halaxe deklaratu du: *Cela s'est passé*, pasa da guztia, atera naiz infernutik, begi eta bihotz berriekin ikusten dut orain mundua. Lehenago, neurria hartzeko gaitasuna falta zitzaidan, gauzen balioa neurtzeko balantza; baina balantza hori desertuan aurkitu dut.

BERNARDO ATXAGA, *Behi euskaldun baten memoriak*



9. Parkeko aulki gorrian

Parkeko aulki gorrian
txori batek
kantatu du
eguerdian
bikote batek
elkar maitatu
ilunabarrean
eta eskale batek lo
gau bakartian.

JOXANTONIO ORMAZABAL,
Ilunorduak eta argilaurdenak

8. Desierto

Una vaca que quiera ser vaca de verdad, y no una vaca tonta, acabará por toparse con el desierto; no conseguirá cumplir su deseo sin antes conocer el amargo reino que, lejos de este mundo, sólo puede ofrecerle arena. Y entre la arena, sin una brizna de hierba, sin una gota de agua, la vaca que quiera ser vaca de verdad creará enloquecer, y a veces, los días en que el sol castigue con más fuerza, se arrepentirá de haber comenzado el viaje y soñará con las dulzuras del establo que dejó. Pero ella, que recuerda bien lo tontas que suelen ser las vacas tontas, no cederá al desaliento; seguirá adelante hasta atravesar el desierto y tener ante sus ojos los montes húmedos y los bosques sombreados. Entonces, recordando lo que dijo el poeta, declarará así: Cela s'est passé, ya todo ha pasado, he salido del infierno, veo el mundo con ojos y corazón nuevos. Antes me faltaba la balanza de medir el valor de las cosas; pero ahora, en el desierto, la he encontrado.

BERNARDO ATXAGA,
Memorias de una vaca

9. En el banco rojo del parque

*En el banco rojo del parque
al mediodía
canta un pájaro
al atardecer
se ama una pareja
y en la noche solitaria
duerme un mendigo.*

JOXANTONIO ORMAZABAL,
Ilunorduak eta argilaurdenak

10. Papertxoriak

Eta parkera eramán ninduen, ttikia nintzanean askotan zurekin joaten nintzen parke berberera, eta gogoan izango duzu nola han urmael handi bat dagoen, ahate, beltzarga eta sahats negarti batekin, ezta? Papertxoriak egiten ikasi nuenean hara joaten nintzen uretara botatzera, eta orduan zuk esaten zenidan hori ez zela egin behar, papertxori haiek molestatu egiten zituztela altxor bila zebiltzan ahartetxoak. Eta hark asko harritu ninduen eta zuk urrezko eraztuna ur azpian aurkitu zuen ahartetxoaren istorioa kontatzen zenidan, gogoratzen al zara?

MARIASUN LANDA, *Amona, zure Iholdi*



11. Neure burua

Nire buruan nik nahi dudana dago. Eta barrutik ere korrika egin daiteke eta hor neuk bakarrik egiten dut. Itsasoa ikustea gustatuko litzaidake, baina nire buru barruan ikusten dut eta orain olatu handiak egongo dira eta gau batzuetan amets egiten dut hondartzan korrika nabilela.

ASUN BALZOLA, *Jontxuren fragata*

10. Pajaritas de papel

Y me llevó al parque, al mismo parque al que solía ir contigo cuando era pequeña. Seguro que te acuerdas que allí hay un estanque grande, con patos, cisnes y un sauce llorón en la orilla, ¿verdad? Cuando aprendí a hacer pajaritas de papel solía ir a ese estanque a echarlas al agua y, entonces, tú me decías que no había que hacer eso, que aquellas pajaritas de papel molestaban a los patitos que buceaban buscando tesoros bajo el agua. Y aquello me solía extrañar mucho, hasta que tú me contaste la historia del patito que encontró un anillo de oro bajo el agua... ¿te acuerdas?

MARIASUN LANDA, *Los secretos de Iholdi*

11. Mi cabeza

Dentro de mi cabeza está lo que yo quiero. Y correr también se puede por dentro y ahí no mando más que yo mismo.

Me gustaría ver el mar, pero lo veo en mi cabeza y ahora debe haber mucho oleaje y hay noches que sueño que corro por la playa.

ASUN BALZOLA, *La fragata de Jonchu*

12. Izarrak

Beatrizek ez ditu izarrak sarri ikusten. Hiriko zerua lainotuta egoten da askotan. «Zortea dute astronautek, izarrak gertutik ikusten dituztelako», pentsatzen du Beatrizek. Handitzen denean, astronauta izango da Beatriz. Hala erabaki du berak.

Iaz, garai bertsuan, Beatrizek hegazkin pilotu izan nahi zuen. Aurreko urtean hegazkin neska. Aurreko urtearen aurreko urtean txoria. Beatrizek izar multzoen izenak irakurri ditu. Asko dira. Orión, Kasiopea, Perseo, Andromeda, Carina...


FELIPE JUARISTI, *Izar euria*

12. Estrellas

Beatriz no ve a menudo estrellas. El cielo de la ciudad acostumbra a estar cubierto de nubes. «¡Qué suerte tienen los astronautas por ver de cerca las estrellas!», ha pensado tantas veces. Cuando crezca, Beatriz será astronauta. Así lo ha decidido.

El año pasado, por la misma época, Beatriz quiso ser piloto de avión. El anterior al año pasado, azafata. El anterior al anterior del año pasado, pájaro. Beatriz ha aprendido los nombres de las constelaciones. Son muchas. Orión, Casiopea, Perseo, Andrómeda, Carina...

FELIPE JUARISTI, *Lluvia de estrellas*



13. Akaberakoa

Behin batez, baziren bi bele.
Baztek zuen buztan handi bat.
Besteak buztan ttipi bat.
Buztan ttipi zuen hark
izan balu handia
ene istorioa izanen zen luzea.
Baina ttipia baitzuen,
ene istorioa ere izanen da laburra,
eta horretan gelditzen da.

HERRIKOIA

13. Punto final

*Había una vez dos cuervos.
Uno tenía una cola larga.
El otro una cola corta.
Si el de la cola corta,
la hubiera tenido larga,
mi cuento sería largo.
Pero como la tenía corta,
también lo será mi cuento.
Y sanseacabó.*

POPULAR